

GUKA Asteartea, 2025eko apirilaren 22a

zumaiaguka.eus

ZUMAIA

GUKA



BADATOR TAOSA URDINA

Gora San Telmo!

Zumaiako merkatariek eta ostalariek
jai zoriontsuak opa dizkizuite!



Zumaiako
Udala



Z ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

GERTU
ZUMAIKO MERKATARI & OSTALARI ELKARTEA



Iritzia
Esti Curiel

Herri guztiak 'loloo lolololoolo' abesten duen bitartean, nik 'piribipipipipi' egiten dut

Iritsi da herria urdinez betetzeko garaia. Zer arropa jantzi pentsatu behar ez den urteko garai hori, kasaka urdina soinean eta zapia lepoan dugularik kalera ateratzeko egunak. Lagunekin eta familiarekin egoteko uneak, umore onari bidea ireki eta errutinatik irteteko egunak.

Umetako oroitzapenak San Pedro Txiki abesbatzarekin lotzen ditut, festei hasiera ematen zien ekitaldia egiten genuen, lehen ostiralean; guretzat urteko emanaldirik bereziena zela esango nuke. Bertan ikasi nituen *San Telmo martxa*-ren hitzak, eta gaur egun ere abesten ditut oraindik. Jende gehienak ez du ezagutzen, eta danborradak egiten duen bertsioan zati bat saltatu behar dugun arren, moldatzen gara abesten jarraitzeko kuadrillako batzuk, baita abesbatzan ibilitako zenbait ere.

Momentu berezia iruditzen zait bai bandera igoera, baita jaitsiera ere, *San Telmo Martxa*-k agian nire gaztaroan ere lekua izan zuelako. Herriko musika bandan zeharkako txirula jotzen nuen, eta, beraz, behin eta berriz jotzen genuen

abestia; doinu hori gorputzean geratzen da, lehen bi notak entzutearekin zirrarak gorputza hartzen dit. Abestiaren erdialdeko zatian, hitzik ez duen zatian, herri guztiak «loloo lolololoolo» abesten duen bitartean, nik «piribipipipipi» egiten dut, txirularen partitura oroitzuz. Tontakeria txiki horiekin dibertitzen naiz ni. Ezin ahaztu musika bandarekin irteten nintzen garaietako San Telmo eguneko prozesioez; lehen bi izaten ziren, 08:00etan gaixoena, eta orain egiten jarraitzen dena ondoren. Onartu beharra daukat goizeko horretara behin baino gehiagotan iritsi nintzela lo gutxi eginda.

Egunez gozatzea eta kaleko jardueretan parte hartzea lehenesten dut

Askatasunez, errespetuz eta presarik gabe bizi festak

Urte luzez Ganbara tabernan egin nuen lan; beraz, urte askoan festak lanarekin lotu ditut. Gustatzen zitzaidan hori; nekagarria zen, bai, baina festak oso sutsuki bizitzearen oroitzapena dut. Lana eta festa uztartuz, eguneko ordu guztiak aprobetxatzen nituen. Jende askorekin hartu-eman izateko aukera eman zidan. Lan asko egiteko egunak izaten ziren arren, ondo pasatzen genuen; umore ona genuen lantaldean. Gau batez itzuliko nintzateke, baina lantalde harekin, e!

Gaur egun beste erritmo bat daramat; parranda ez da garrantzitsuena, nahiz eta gau txoria naizen, egunez gozatzea eta kalean dauden jardueretan parte hartzea lehenesten dut. Aurten barrika jotzen aterako naiz danborradan. Urduri joan nintzen lehen entsegura, umetan bezala. Festa parte hartzaileak ditut gustuko; zaldi lasterketan ez naiz inoiz aterako, baina etorkizunean Bertsio Gauean aritzea ez dut baztertzen (kar, kar, kar).

Askatasunez, errespetuz eta presarik gabe bizi festak. Kalean ikusiko dugu elkar.

Gora San Telmo!



Clinica Dental · Hartz Klinika



ANE IBARRETXE
HORTZ KLINIKA



GORA SANTELMOAK!

ESTETIKA
ORTODONTZIA
PERIODONTZIA
IMPLANTOLOGIA
ODONTOPIEDIATRIA
PADI
BERRERAIKI
BERRESKURATU
MANTENDU

**4****Santelmoak**Asteartea, 2025eko apirilaren 22a **GUKA**

GORA SANTELMOAK!

Eguneko menua eta terraza ederra

Victoriano Arrate z/g



GORA SANTELMOAK!

Pintxoak eta giro jatorra

Bidasoa kalea z/g · 943-86 22 25

LABARRA TABERNA
ZUMAIA
est. 2016

Pintxo bereziak eta terraza bikaina

GORA SANTELMOAK!

Ondartxo plaza 5. Tel. 943-86 04 84



ASESORIA ARIN
AHOLKULARITZA ETA KUDEAKETA

ZESTOA
Gesalaga kalea, 22 behe
T: 943-89 70 99
M: 657 79 90 52

ZUMAIA
Pantxita etxearreta, 15 behe
T: 943-11 71 55
M: 657 79 90 52

asesoriarin@asesoriarin.com

GORA SANTELMOAK!

30
URTEKO
ESPERIENTZIA



Pintxo bereziak eta terraza bikaina

GORA SANTELMOAK!

Ondartxo plaza 4, behe B1 | 623 27 21 91

San Telmo festak zuri-beltzean zirenekoak

Santelmoak ez dira izan beti gaur egungoak bezalakoak. Zumaia herri gisa aldatzen joan den bezala, nabariak dira urteetan zehar jaiek izan dituzten aldaketak. Emakumeen parte hartzea areagotu izana da horietako bat.

Marinelen jantzi urdinez eta kresal usainez janzten dira San Telmo jaiak urtero Zumaian. Data zehatzik izan ez arren, zumaiarren agendetan hutsik egiten ez duten festak dira. Gaur egungo festetan ezagunak dira herriko bandak *San Telmo Martxa* jotzen duen bitartean San Telmo ermitaraino egiten den prozesioa, Kofradiako plaza-ko dantzaldiak, Itzurun hondartzako zaldiak, helduen nahiz haurren danborradak, pilota partidak, trainerilen estropadak, kontzertuak karpan, olagarro zoparen lehiaketa edota bertso saioak.

Baina santelmoak ez dira beti horrelakoak izan. Zumaia herri gisa aldatzen joan den bezala, nabariak dira urteetan zehar festek izan dituzten aldaketak; batik bat, 1953. urteko San Telmo ermitaren irudia ikusiz gero. Urte hartan

bertan egin zizkioten berrikuntzak ermitari, eta, beraz, gaur egun hain ezaguna den herriko hondartzara begira dagoen ermitaren itxura erabat aldatu zen.

Gizonezkoek zein emakumeek garai hartako festetan zuten presentzia ere agerikoa da irudi zaharrak ikustean. Ez da erraza emakumeak ikustea argazki horietan, gizonezkoek festaren arlo guztiak hartzen baitzituzten. Baina bada 1955eko irudi berezi bat; hiru emakume eta haur bat arrantzalez jantzita ageri dira urte hartako santelmoetan.

Eta, hain zuzen ere, hor dago aldaketarik handiena. Izan ere, gaur egungo festak ikusita ez badirudi ere, gizonezkoak izan dira urte luzez danborradako parte hartzaile gehienak. Egun, ordea, herritar guztiek aukera bera dute festetan parte hartzeko. Eta hori da, ziurrenik, santelmoen xarma: herritarren festak direla.



San Telmo ermita, 1953an



Herritarak santelmoetan, 1955ean



1965. urteko prozesioa



Herritar batzuk 1971ko danborradan

Sartaia

Janaridenda-okindegia
Gora santelmoak!!

Txomin Agirre kaia z/g • 943-86 01 71



ASESORIA ZUMAI, S.L.
Errenta aitorpena, aholkularitza...

Plaza Amaia 15 bajo
20750 Zumaia
Telf.: 943-86 26 24
Fax: 943-86 27 94
e-mail: info@zumai.com

GORA
SANTELMOAK!

ferreteria Galdona S.A.



Gora
santelmoak!

Lanerako arropak, epiak...

JOSE MARI KORTA INDUSTRIGUNEA • Pab. A6.1, 2-5 mod. • Tel.: 943-86 11 17

Xiru

Ondartxo plaza 3
943-86 17 05
747 48 35 52

Argazki eta opari denda

Gora santelmoak!

25 urte Flyscharen magia
arakatzen, bere istorioetan
nabigatzen eta Zumaiaren
esentzia partekatzen.

Gora Santelmoak!

begi • bistan

☎ 657 794 688 🌐 www.begi-bistan.com



**6****Santelmoak**Asteartea, 2025eko apirilaren 22a **GUKA**

Prozesioa San Telmo kalean, duela hainbat urte. ZUMAIKO UDALAREN FOTOTEKA

Emakumeak festetan lan egitetik jaiaren parte izatera igaro dira

Maritxu Arrutik urte askoan eskaini du hamaiketakoa bere etxean santelmoetan. Festez gozatu ez, eta lan eta lan ematen zituen egun horiek. Gaur egun, Itxas Gain elkarteak prestatzen du hamaiketakoa, eta jaiez gozatzeko aukera dute Arrutik eta haren moduko emakumeek.

zumargi
elektrizitatea

GORA
SANTELMOAKI

- Etxebizitzetako eta lokaletako eraberritzeak/konponketak.
- Telebistako antena kolektiboak eta banakakoak.
- Eguzki panelak.
- Ibilgailu elektrikorako karga-puntuak

Etxezarreta 17 behea • ZUMAIA • Tel.: 943 05 47 93



IBERDROLA
Zure energia izan nahi dugu.
Bezerearentzako
arreta-puntua



tiete bertaratzen diren herritar guztiei.

Baina hori ez da beti horrela izan. Hau da, hamaiketako prestatzearen ardura ez da beti Itxas Gain elkartearena izan. Ondo daki hori Maritxu Arrutik. Estazioan jaioa eta hezia, ezkondu ondoren joan zen San Telmo kalera bizitzera, eta festei izena ematen dien kalean bizita, hamaiketako eskaini zuen urte luzez bere etxean. Santelmoak iristean, kalea nahiz bere etxea leporaino betetzen zirela ondo gogoratzen du Arrutik: «Ikaragarria zen».

Gizonak trajearekin janzen ziren, gorbata eta guzti, eta goizean elizara joaten ziren gaixo zeudenei jauna ematera. Ondoren, San Telmo ermitara igotzen ziren, eta prozesioan jaitsi kalera; orduan, kaleko etxe guztiak zabaltzen ziren goizeko otorduak eskaintzeko. Horrela, kuadrillak etxez etxe joaten ziren hamaiketako egitera. «Hala, gure etxera ere iristen ziren, eta etxea mahai

luzez eta aulkiz bete eta hamaiketako eskaintzen genuen. Hori da lan pila egiten nuen!», oroitu du Arrutik.

Izan ere, 06:30erako lapikoa sutan izaten zuela gogoratu du: «Salda, kroketak... denez egiten nuen. Lehenbizi salda eskaintzen nuen, eta, ondoren, zirenak eta ez zirenak etortzen ziren: jatekoa, edaria, umeak... dena nire ardurapean izaten zen, eta umeari fardela aldatzeko astirik ere ez nuen izaten. Gero, gizonak joaten zirenean, dena jaso behar izaten genuen, garbitu eta bazkaria prestatzen hasi, familia osoa etortzen baitzen bazkaltzera. Gizonak *vivalapepa* ibiltzen ziren bitartean, gu lan eta lan».

Festak izan arren, jai giroaz ezin izaten zuen gozatu Arrutik. «Guretzat ikaragarria izaten zen; festarik ez genuen egiten, eta neka-neka eginda amaitzen genuen! Garai hartan horrela izaten zen; gero, eskerak elkarrekin hasi ziren hamaiketakoak ematen... orduan salbatu ginen gu!».

Aldaketak

San Telmo kaleko familietan oraindik batek edo bestek ohi-turarekin jarraitzen du, eta leihotik eskaintzen dute hamaiketako, baina erabat galdu zen hamaiketako etxeetan egiteko usadioa. Horrela, elkarrekin hasi zirenean hamaiketako eskaintzen, eta Arruti festaz gozatzen hasi zen: «Doktore jantzi, elizara joan, Kirol portura ere bai urdinez jantzi-



Maritxu Arruti zumaiarra, San Telmo kaleko bere etxean.

ta, kanpoan bazkaldu... Hori aldaketa!».

Arrutiren esanetan, festa bera ere asko aldatu da: lehen, San Telmo kaleko tradizioaz gain, Kofradian dantzaldiak eta gauza gutxi gehiago izaten ziren; «bi eguneko festa bakarrik zen». Orain, txupinazioaren ondoren, marea urdina jaisten da San Telmotik, eta Arrutiren etxe parean jartzen dute mahaia hamaiketakoarekin. Herritar ugari biltzen da bertan.

Gaur egun, Itxas Gain elkarrekin eskaintzen du hamaiketako. Ardura hori 2004. urtean hartu zuten elkarrekin kideek, eta poliki-poliki hasi ziren arren –garai hartan ez baitzen jende gehiegi elkartzen–, gaur egun ekitaldi jendetsua da. Horregatik, ondo antolatu eta jateko ugari eskaintzen dute: 25 kilo haragi, 50 kilo txorizo, salda egiteko produktuak... Aurretik ere, hutsik egin gabe, bertaratuko diren herritar guztien sabelak ondo beteko dituzte.

Larunbat eguerdian San Telmo festei hasiera ematen dien suzuria jaurti ondoren, San Telmo ermita inguruan bildutako herritarrek kalejiran jaitsiko dira izen bereko kalera, musika eskolako trikitilarien laguntzarekin. Hara iristean, Itxas Gain elkarrekin dena prestatuta izango dute festa gosez dauden herritar horien sabelak betetzeko, hamaiketako eskainiko bai-

Maritxu Arrutik hamaiketako eskaini zuen urte luzez bere etxean

Gaur egun, Itxas Gain elkarrekin prestatzen du hamaiketako; jende ugari biltzen da



Muniosoro
erretegia
Eguneko menua eta asteburukoa

Gora santelmoak!

Oikia 54, Zumaia · 943-14 78 91



**8****Santelmoak**Asteartea, 2025eko apirilaren 22a **GUKA**

«Ohore handia da niretzat bandera igotzea»

Joxean Urresti San Telmo jaietan bandera igoko duen herritarra

Joxean Urresti (Getaria, 1968) 16 urte zituenetik ibili da arrantzan. Ikasle fina ez zenez, itsasoan murgildu zen aitarekin eta bi anaiekin batera. Duela 25 urte etorri zen Zumaiara, emaztearekin bizitzera. Aurten, bandera igoko du San Telmo festetan.

Azkue

Profesionalak gara



admadministradores
administratzaileak



**GORA
SANTELMOAK!**

943-86 26 51
www.ricardoazkue.com





Noiz eta nola hasi zinen arrantzaz?

Txiki-txikitatik ibiltzen naiz arrantzaz; izan ere, nire familia arrantzalea da. Aita betidanik ibili da arrantzaz, baita nire bi anaiak ere, eta ikasle fina ez nintzenez, 16 urterekin itsasoan murgildu nintzen ni ere; hasieran, Getarian, eta ondoren, Zumaian.

Arrantzaren munduan, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Arrantzaleari gehien gustatzen zaiona arraina harrapatzea da. Itsasora irten eta gehien gozatzaren den unea itsasontzia arrainez beteta ikusten denekoa da. Zein dira arrantzale izatearen erronka nagusiak?

Lehia handia dago gure artean. Zure ingurukoak arraina harrapatzen badu zuk ere harrapatu beharra daukazu, edo norbait itsasora baldin badoa, zu ere joan egin behar zara, berak baino gehiago harrapatze-ko eta atzean ez geratzeko.

Non ibiltzen zinen arrantzaz?

Normalean Getariatik irten eta lau zapabost orduko bidaiak egiten nituen itsasoan zehar; 17:00etan irten eta 07:00ak aldera itzultzen nintzen etxera. Ondoren, nire emazteagatik etorri nintzen Zumaia bizi-terera. Gazteak ginela ezagutu genuen elkar, eta duela 25 bat urte etorri nintzen berarekin bizitzera. Zumaian, Getarian bezalaxe, bidaiak egiten ibili izan naiz, eta herrian bertan ere arrantzatu izan dut.

Zein da egin duzun bidaiarik luzeena?

Atunak harrapatzea joan izan naiz batzuetan, eta halako kasuetan, hamabost bat egun igarotzen nituen etxetik kanpo.

Atunak arrantzatzea jendea Irlandaraino joan ohi da, baina ni Galiziaraino soilik iritsi naiz, Vigora.

Zer desberdintasun daude Zumaian eta Getarian arrantza egiteko orduan?

Alde batetik, Zumaian itsasontzi bakarra dago, Getarian daude beste guztiak, eta horrek zailtasunak ekartzen ditu



«Beti eskertuko diot Olgari ni itsasoan nengoen bitartean bi semeak zaintzeko ardura hartu izana»

«Lagun askok esan didate ea nola den posible getariar bat izatea Zumaia-ko jaietako omendua»

«Ezerk ez nau poztu etxera itsasontzia arrainez beteta itzultzeak bezainbeste»

Zumaia-ko arrantzara irteteko orduan. Bestetik, Zumaia-ko arrantzara joaten den jendea jardura hori benetan gustatzen zaiolako joaten dela uste dut; hau da, denbora-pasa moduan. Getarian, aldiz, lanbide garrantzitsu bat bihurtu da arrantzarena, familia asko bizi baitira horren kontura.

Eta ba al dago alderik lehengo eta oraingo arrantzaren artean?

Lehen dena zen zailagoa. Gaur egun, itsasontziak itsasora irteteko prest daude; lehen ez. Teknologia berrikuntzek dena erraztu dute. Alde batetik, arraina harrapatze-ko erabiltzen diren tresnak hidraulikoak dira. Bestetik, itsasontziak lehen egurrezkoak izaten ziren, eta orain, aldiz, txapazkoak izaten dira. Eta amaitzeko, Internetak eta wifiak eragin dituzten aurrerapausoek aldaketa handiak ekarri dituzte arrantzaren mundura ere.

Nola uztartzen zenituen arrantza eta familia?

Nire bikotekidea Olga da, eta bi seme ditugu: Beñat eta Eneko. Hirurak izan dira nire lehen-tasuna beti, baina dena iristeko, denbora eta antolakuntza behar nituen. Horregatik, beti eskertuko diot Olgari ni itsasoan nengoen bitartean bi semeak zaintzeko ardura hartu izana. Nolabait, bere babes izan da ni itsasora lasai joateko arrazoi-terako bat. Familiaren laguntza oso garrantzitsua dela uste dut arrantzale guztientzat. Nola ikusten duzu Zumaian arrantzaren eta tradizioen etorkizuna?

Zumaian ez dago Getarian bezalako egituraketarik, baina uste dut afizioz beti egongo direla arrantzaleak. Izan ere, Getarian, portua, kofradia, itsasontziak... dituzte. Horiek garrantzi handiko elementuak dira arrantza gauzatu ahal izateko. Etorkizunera begira, egia da arriskua ikusten diodala ogibideari. Azken finean, lan gogorra da arrantzaleena, eta gaur egungo gazteei gehiago kostatzen zaie horrelako lanak egitea. Hala ere, arrantzaleon

lana ezinbestekoa dela iruditzen zait, arrainak pertsonentzako osasungarriak baitira.

Nola laguntzen duzu zuk arrantza bezalako tradizio baktek bizirik iraun dezan?

Gaur egungo gazteei esan nahi diet, nahiz eta arrantzaleena lan gogorra izan, lanbide duina dela, eta gustatuz gero, animatzeko. Bizitza bizitzeko beste modu bat da, eta esperientzia txarrak bezain onak bizi daitetzkeen arren, arrantzale lanetan jardutea merezi du. Niri egin didazuen elkarriketaren modukoen bitartez, uste dut gazteak bultzatzea ditzakegula arrantzaleen munduan murgiltzera.

Ba al duzu kontatzeko arrantzaz ari zinela bizi izandako abenturarik?

Ez dakit, ez dut beste munduko abenturarik bizi izan. Oroitzapen ederrak baditut, bai. Santiago egun batean, gogoratzen dut itsasontzi guztia atunez beteta ekarri genuela. A zer eguna! Horrez gain, beldurra ere pasatu izan dugu. Lehen, egurrezkoak ziren itsasontziak eta material guztia; itsaso zakarra zegoenean gauzarik txikienak ere izugarritzko soinua egiten zuen, eta bertan geratuko ginela ematen zuen. Gainera, eguraldiak ezustean harrapatzen gintuen, ez genekien zer etorriko zen. Orain, aldiz, horrelako gutxi gertatzen dira. Eguraldi txarra iragarrita baldin badago, denbora nahikoa izaten dute ihes egiteko edo lehorreratzeko. Alde horretatik, gaur egun, babes handiagoa dago, eta beraz, istripu gutxiago gertatzen dira.

Ba al duzu arrantza egiteko toki gogokoenik?

Ez dut arrantzaz egiteko gustuko tokirik, arraina dagoen tokian nago gustura beti. Itsasoa oso zabala da eta ehunka toki bisitatu ditut arrantzari esker, baina ezerk ez nau poztu etxera itsasontzia arrainez beteta itzultzeak bezainbeste.

Aurtengo San Telmo jaietan omenduko zaituzte. Nola sentitzen zara horren aurrean?

Lagun askok esan didate ea nola den posible getariar bat izatea Zumaia-ko jaietako omendua. Getaria-ko lagunak ere broma asko egin dizkirate: bandera igo ondoren, «aupa Getaria!» esateko eta horrelako aholkuak eman dizkirate. Niretzat ohore handia da omenaldia jasotzea. Behin edo behin pentsatu izan dut posible zela nire eguna iris-tea eta ni izatea omendua, baina ezusteko ederra izan da.

Nola ospatzen dituzu San Telmo festak? Ba al duzu ohiturarik?

Urtez urte ohitura berari eus-ten diogu; egunero elkartean batzen gara bazkaria egiteko. Beti jan eta edan egiten dugu.

Zer gustatzen zaizu gehien jaietatik?

Herrian egoten den giroa asko gustatzen zait. Santelmoak beti izan ohi dira jai politik eta alaiak. Arrantzalez janztea ere ederra da, ohitura eta tradizioak mantentzeko.

Nola biziko dituzu aurtengo santelmoak?

Urteroko lege, ostiralean kalera irtengo gara giroan murgilduz; larunbatean, bazkaltzeko elkartuko gara, eta arratsaldean txosnetan ibiliko gara. Eta igandean ere berdin egingo dugu.

Gora San Telmo!

txopa
GASTROLEKUA

Erreserbak: 943 574 098 | 644 971 228



«Euskarazko eta Zumaiari lotutako izena nahi genuen, eta Lakatz aukeratu dugu»

Maite Mantzizidor, Araika Arrona, Mertxe Izeta eta Nerea Hernandez

Umeen danborradaren antolatzaileak

Umeen danborrada antolatzearen lekukoa hartu dute Lakatz elkartekoek. Maite Mantzizidorrek, Araika Arronak, Mertxe Izetak eta Nerea Hernandezek diote egiten duten lana «ederra» dela, baina, aldi berean, «ez oso erraza».



Decotena
Zure ametsak gure helburu

KOLTXOIAK FABRIKATZEN DITUGU

Ohea janzteko behar duzun
guztia eskaintzen du Decotenak

**NEURRIRA EGINDAKO
KOLTXOIAK**

BURKOAK

IZARAK

EDREDOIAK

**Gora
San Telmo
jaiak!**



ZUMAIA

AZKOITIA

BERGARA

ELGOIBAR



Zuentzat zer esan nahi dute San Telmo jaiek?

ARAIKA ARRONA: Zumaiaiko herriko festa nagusiak San Pedro jaiak dira, baina niretzako San Telmo jaiak dira lehenak. Gaztetatik urte osoan zehar egun horiek iristeko zain egoten gara. Niretzako kutsu berezia dute.

MERTXE IZETA: Niretzat santelmoak jendeak kalean bizitzen dituen jaiak dira; sanpedroak formalagoak izaten dira. **Nola ospatzen dituzue?**

A.A.: Guk lehengo urtera arte helduen danborrada antolatzen genuen; ez elkarte gisa, norbanako bezala baizik. Aurretik, lehenengoz haurrena antolatzearen ardura hartu dugu. Azken finean, danborrada bat antolatzeak aurrez lan asko egitea eskatzen du: materiala errepasatu behar da; umeen kasuan, zerrendak errepasatu behar dira... Beraz, inauteriak pasatu ondoren, astebeteko atsedena egiten dugu, eta ondoren, umeen entseguetan hasten gara. Aste Santua igaro ondoren, Musika Bandako kideekin elkartzeko gara eta azken entseguak egiten ditugu. San Telmo jaietako larunbatean azken xehetasunekin ibiltzen gara, eta igandean danborrada eguna izaten da. Ondorioz, ordura arte lanpetuta egoten gara, eta danborrada pasatu ondoren, parranda egiten dugu.

Nolatan hasi zineten umeen danborradaren antolaketarekin?

NEREA HERNANDEZ: Nire erruz. Norbaitek kargua hartu beharra zuela uste nuen, ezin zela tradizioa galdu. Nire seme-alabek 2 urte zituztenean, Jakintza elkartearen sartu nintzen,

baina bertako kideok adinekoak ginen unea iritsi zen, eta elkartearen utzi behar genuenean hauei [elkarrizketatuei zuzenduta] deitu nien. Aurrera egin genuen.



«Norbaitek kargua hartu beharra zuela uste genuen, ezin zela danbor festaren tradizioa galdu»

«Lehen, mutilak eta neskak bereizten ziren; orain, nahi duen bezala jantzi daiteke bakoitza»

«Danborradaren egunean, lehenbiziko kanta hasi arte oso urduri egongo gara»

A.A.: Guk elkarte bat sortu geneukan lehendik, batik bat kaldereroak antolatzeko helburuarekin, eta azkenean, danborradaren erreleboa ere hartu genuen.

Zer diozue sortu duzuen elkartearen inguruan?

A.A.: Bost kide gara elkartearen, eta Lakatz du izena taldeak, Lakatz kultur elkartearen. Lakatz gaztainaren gaineko arantzadun azala da. Euskarazko eta Zumaia lotutako izena nahi genuen elkartearentzat, eta Lakatz aukeratu genuen. Zumaia Gukan herriko hitzen bilketa egiten dute, eta horien artean gehien gustatu zitzaiguna izan zen.

Zein da danborradaren historia? Nola hasi ziren Zumaian danbor festa egiten?

N.H.: Donostian sansebastiaren ospatzen zirela ikusi zutenean, Zumaian ere horrelako zerbaitekin egin beharra zegoela pentsatu zuten. Orduan, danborrada abuztuaren egiten hasi ziren, baina, urte batzuk igaro ondoren, santelmoetara pasatzea erabaki zuten. Eguraldi txarra iragartzen zutenean, bertan behera geratu eta hurrengo asteburura aldatzen zuten, baina orain ez dugu hala korik egiten.

Nola prestatzen dira umeak danborradarako?

A.A.: Garai batean, astean ordubeteko bi entsegu egiten zituzten, baina orain, ordu eta erdiko entsegu bakarra egiten dugu astean, larunbatetan.

MAITE MANTZIZIDOR: Guztira, zortzi entsegu egiten ditugu: bost larunbatetan, eta azken astean Musika Bandarekin egiten ditugu beste hiru.

Nola jantzen dira danbor jotzaileak? Mantentzen al dute tradizioa?

A.A.: Tradizioa mantentzen da, bai. Lehen, mutilak eta neskak bereizten ziren, baina, orain, bakoitza nahi duen bezala jantzi daiteke. Hala ere, bi traje bereizten dira, baina, esan bezala, bakoitzak traje horietako edozein aukera dezake. Lehen jantziak ezaugarri hauek ditu: alkandora, gona, azpiko gona, zapi eta zapatila urdinak. Bigarrenak, berriz, honako hauek: alkandora edo kasaka urdina, galtza urdinak eta txapela.

Orain arte beste aldetik ikusiko zenuten danborrada. Zer sentitzen da orain, antolakuntzan murgilduta egotean?

M.M.: Ni gehiago gozatzen ari naiz orain. Esaterako, Zumaian, makilak hartzeko modu berezi bat dago tradizioz, eta hasieran, izugarritzako begiko mina ematen zidan horrela hartzen ez zituztela ikustea. Orain, aldiz, partaideei hori irakatsi izanak ondo sentiarazten nau.

M.I.: Lehen, egunean bertan ibiltzen nintzen kolaboratzen, eta orain, entsegu guztietan parte hartzen dugu. Umeekin hartu-eman handiagoa dugu, eta hori berezia da.

Zein da erronkarik handiena?

M.M.: Niri zaila egiten zait ume txikiak kontzentratuta mantentzea. Kantak bi minutu irauten baditu, lehen 15 segundotan jada beste aldera begira egoten dira. Gure garaian, uste dut jaramon gehiago egiten gendola zuzendariari edota ondo jotzeko presio handiagoa genduela. Gaur egun, aldiz, ume gehienak ez daudela diziplina horretara ohituta iruditzen zait. Baina, era berean, niretzat erronka handi bat da, modu batera edo bestera pentsarazi egiten didalako zer irakatsi behar dieran hain txikiak direnei gizarte desberdin honetan.

A.A.: Egia da. Gaur egun, umeak sakelako telefonoarekin ibiltzeko joera dute: Youtubeko bideoak, shorts-ak... ikusten dituzte, eta horiek ez dute laguntzen. Ohituta daude segundo gutxi batzuetan soilik jaramon egitera, eta beraz, kanta osoan zehar erraz despistatzen dira.

Karrozaren antolakuntzari dagokionez, nolakoa da prozesua?

M.M.: Duela 30 bat urte hasi zen karrozaren kontua. Urtero, nire aita helduen danborradan irte-

ten zen traineru handi bat jarrita karroza gisa, eta ez zela oso segurua esaten zidan beti.

A.A.: Jakintza elkartearen hartuko zuten karroza egiteko erabakia, beraiek egiten baitute. Laguntza eskatu izan dute, lan handia egin behar izaten baita: materialaren aldetik, ideiak, prozesua... Eta azken urteetan gu ere laguntzen ibili gara: Nereak, Maitek eta nik Errege Eguneko karrozak egiten ditugu, eta Mertxek santelmoetan laguntzen du.

M.I.: 3 urteko umeak joaten dira bertan, txikienek ere parte har dezaten.

A.A.: Gaitegi desberdin asko izan ditu karrozak, Bob Esponjatik hasi eta Zumaiaiko olagarror handi bat irudikatzeraino. Azken urteetan, arrantzarekin zerikusia duen zerbaitekin saiatu gara, baina gauza ezberdin asko egin izan ditugu. Duela urte batzuk karroza eramaten duen traktorearen erreplika egin genuen, omenaldi gisa, beti traktore berdina irteten delako. Santa Klara baserriko familiako kide bat izaten da gidaria beti.

Nolakoa irudikatzen duzue eguna, momentua, prestatutako guztia jendearen aurrean erakusteko unea?

A.A.: Orain arte laguntzaile izan gara, eta orain ardura gurea da. Beraz, gure lana danborrada hastean aldatuko da, zerbaite gertatzen baldin bada, erabakitzeko ardura hori gurea izango baita.

M.M.: Egia esan, ez naiz horretan pentsatzen jarri. Urtero-urtero traktorearengandik gertu ibili izan naiz, baina ez dakit aurtengo edizioan non egongo naizen.

M.I.: Nire aburuz, lehenbiziko kanta hasi arte oso urduri egongo gara.

aholkulariak

UNANUE

ZERGAK | LABORALA | AUDITORETZA | ENPRESA ETA AUTONOMOAK

GORA SANTELMOAK!

Erribera kalea 6, ZUMAIA | Tel.: 943-86 09 60 | unanue@unanue.eus | www.unanue.eus

Otezuri kafetegia

ZUMAIA

Eguneko ogia eta gosaria
AUPA SANTELMO!

otezuri.kafetegia@gmail.com



MANDALA

Papertegia & diseinu grafikoa

www.mandalapapertegia.com

aterpe



Herriko
merkatarien
eta
ostalarien
**erakusleiho
digitala**

Jarri zure **saltokia** eta **produktuak**
edo **zerbitzuak** gure webgunean
eta **zabaltu herrira**



Herritarrek bertan
ikusi ahal izango dute
dendan duzuna, baina
erosketa egitera,
ordaintzera eta
jasotzera, bertara joan
behar dute

GUKA
webguneetan



12

Santelmoak

Asteartea, 2025eko apirilaren 22a **GUKA**

Martxa handia, ezagutza txikia

Zumaiar gehienek unerik gogokoena da helduen danborrada Kofradiaren aurrera iritsi eta 'San Telmo martxa'-ren doinuak hasten direnekoa. Abesti ezagunak hitzak badituen arren, herritar gutxi dakizkitez horiek.

Festen lehen bi egunak igarota, iritsi da igande gaua. Helduen danborrada hasi da, eta Zumaiako hainbat txoko zeharkatu ondoren, Erribera kalean sartu dira danbor jotzaileak. Jendetza dute zain, eta Kofradia aurrean bildu dira herritarrek nahiz danbor jotzaileak, kalea leporaino betez. Gauerdian, Joxean Urresti arrantzaletik ohiak bandera igoko du, Zumaiako Musika Bandak *San Telmo martxa*-ren doinuak jotzen dituen bitartean.

Zumaiar gehienentzat magikoa, hunkigarria eta festetako unerik bereziarena da hori. Herri osoa bildurik, *San Telmo martxa*-ren doinuak zabalduko dituzte lau haizetara, nahiz eta gehien entzungo diren hitzak «loloo lololooloo» izango diren. Izan ere, abesti ezagunak hitzak badituen arren, herritar gutxi dakizkitez horiek.

Historia

San Telmo martxa-k baditu hitzak; zumaiar batek eginak, gainera: Agustin Zubimendik.

Zumaiar dauden eta egon diren abesbatza guztietako kide edota zuzendaria izandakoa da Zubimendi, eta hark gogoratu duenez, doinuak Espainian du jatorria: «Zumaiako Musika Bandako zuzendari izandako batek ekarri zuen pieza. Teruel edota Castello aldetik, baina ideia nagusia kalejira egitea zen. Urtero-urtero jotzen zen, ordea, eta *San Telmo martxa* bilakatu zen azkenean».

Hitzei dagokienez, hasiera batean Iñaki Eizmendi *Basarri* bertsolariari eskatu zioten horiek sortzea. «Baina hitzek ez zuten bat egiten doinuarekin, eta egun batean nigana jo zuten; hala, moldaketa batzuk egin nituen», azaldu du Zubimendik.

Gaur egun, festetan elizan abesten dute *San Telmo martxa*, baita San Telmo ermitan ere, eta kalean, helduen danborradako unean ere entzun daiteke, gutxi, ordea. Horregatik, Zubimendik zumaiarrek abestia kantatzera gonbidatu ditu.

Hona hemen *San Telmo martxa* abestiaren hitzak, herritarrek igande gauerdian abestu dezaten.



GORA SANTELMOAK! ONDO PASA FESTAKI!

ONDARTXO PLAZA, 3
Tel. 943-38 14 14 • www.bikosycafe.com • bikosycafe@gmail.com

Ortega y Gasset kalea 4
Zumaia
943-57 46 51
amamataberna@gmail.com

**Ketuak eta iberikoak
Gora santelmoak!**

Santa Klarako esne eta jogurt artisauek eta osasuntsuak baserritik merkatura zuzenean
*Esne hautsik eta azukre gehigarrik gabe

Salmenta puntua:
San Telmo kalea 24, Zumaia

638 75 07 40 • santaklarabaserria@gmail.com

679 10 31 67
Juan de Zigarán, 1
Zumaia
aitamarijartetxea@gmail.com

**Terraza bikaina eta jantoki zabala
GORA SANTELMOAK!**

**Artisau Garagardoa Zumaian eginga
Gora Santelmoak!**

www.breweryland.eus

SAN TELMO MARTXA

Zumaiar denok
bitarteko bat.
Degu goietan
Leial eta benetan
San Telmo maite
Erruki zaitez
Gorde gaitzazu
Erbeste honetan

LA, LA, LA, LA, LA, LA, LA,
LA, POM PORROM...

Arrantzaleok
Zugan daukagu.
Uste osoa
Luzazu besoa
Eiguzu lagun
Nahiz gau nahiz egun
Arrisku danak
Menpera ditzagun

LA LA LA LA LA LA, LA, LA,
LA POM PORROM...



AGENDA

Apirilak 25, ostirala

18:00. Pala Egokituko Binako Txapelketa, Odietan.
19:30. Euskaraldia egitasmoaren aurkezpena eta kalejira dantzatua, Kofradian.
21:00. DJ gaua txosnagunean, Arsenike, Kika 1000, Luji eta Goiko disko jartzaileekin.
22:00. Bertso jaialdia Zumaian, Maialen Lujanbio, Aner Peritz, Aroa Arrizubieta, Beñat Gaztelumendi, Aitor Mendiluze eta Nerea Elustondo bertsolariekin. Gai jartzailea Jon Maia izango da.

Apirilak 26, larunbata

11:00. Udal Txistulari Bandaren kalejira.
12:00. Jaien hasierako txupinazoa, San Telmo ermitaren inguruan. Jarraian, musika eskolako trikitilariak lagunduta, herrira jaitsiera. Ondoren, hamaiketako Itxas Gain elkar-tearen eskutik. Giroa alaitzen ariko dira trikitilariak eta bertso eskolako ikasleak.
12:30. Zumai txarangaren eta trikitilarien kalejira.
12:45. Musika eskolako haurren eskutik, euskal dantzen emanaldia, Ondartxon.
13:30. Zumaia arku dantza eta zahagi dantza, Kofradian.
14:30. Gazte bazkaria, herri eskolako frontoian. Bazkalondan, Hamarru elektotxarangarekin kalejira.
17:00. Industriako herri kirolak haurrentzat, Odietan.
18:00. Ustekabe txarangaren kalejira.
21:30. DJ saioa Rodeo eta Murxirekin, Torreberri gaztetxean.
22:30. Gazte Eguna ospatuko dute txosna eremuan, eta Bloñ, Lukiek eta Chuleria, Joder!

taldeek kontzertuak eskainiko dituzte.
22:30. Bide Batez taldeak dantzaldia eskainiko du, Kofradian.

Apirilak 27, igandea

08:00. Joselontxos txaranga-ekin kalejira.
11:00etatik 13:30era. Santelmoetako 22. Scalextric Txapelketa, Oxford aretoan.
11:30. Hamaiketako herriko arrantzale zaharrentzat.
12:00. Trikitxas bikotearen kalejira.
12:00. Umeen danborrada.
12:30. Joselontxos txarangarekin kalejira.
13:20. Batukada Feminista Sarea, Eusebio Gurrutxaga plazan.
16:30etik 19:00etara. Santelmoetako 22. Scalextric Txapelketa, Oxford aretoan.
17:00. Buruhandien eta erraldioen kalejira txistulariekin, udaletxetik hasita. Ondoren, *Kalean otso, etxean uso* antzerkia, Torreberri.
17:15. Profesionalen esku pilota partidak, Aitzurin.
18:30. Joselontxos txaranga-ekin kalejira.
18:30. Muxiko dantzen ikastaroa, txosnagunean.
19:00. Trikitxas bikotearen kalejira.
22:00. Jo Ta Txo disko jartzailea, txosnagunean.
22:15. Helduen danborrada.
22:30. Sukar taldearen dantzaldia, Kofradiako plazan. Gauerdian, Joxean Urresti arrantzale ohiak bandera igoiko du Kofradian. Danborrada amaitutakoan, Sukar taldeak jarraituko du Kofradian.

Apirilak 28, astelehena

San Telmo eguna

10:15. Prozesioa, San Telmo ermitara.
10:30. Meza Nagusia. Itsasoaren aurrean otoitza egingo

dute, eta ondoren, parrokiara itzuliko dira. Bertan, San Telmoren erlikia gurtuko dute. Ondoren, hamaiketako izango da.
11:30etik 14:00etara. Umeentzat puzgarriak, Odietan.
12:30. Incansables txaranga herriko kaleetan zehar.
16:30etik 19:00etara. Umeentzat puzgarriak, Odietan.
18:00. Plaza dantzak, Kofradian.
18:00. Profesionalen zesta-punta finalak, Aitzuri pilota-lekuan.
18:30. Incansables txarangarekin kalejira.
19:30etik 22:30era. Lotxo taldea, Kofradian.

Maiatzak 2, ostirala

12:00. Patata tortilla lehiaketa, txosnagunean.
17:00. Igel toka eta pote txapelketak, Eusebio Gurrutxaga plazan.
19:30. Irrintzi eta poteo feministak, Amaia plazan.
19:30. Bertso festa, Oxford aretoan.
21:00. Bertsio Gaua, txosnagunean.
21:30. Guija, Loti eta Huegunekin DJ saioa, Torreberri.

Maiatzak 3, larunbata

10:00. Aita Mari II. Bela Estropada.
10:00. 25. Olagarro Zopa Lehiaketa, Eusebio Gurrutxaga plazan. Ekitaldia alaitzen arituko dira Elustondo trikitilariak.
11:00etatik 14:00etara. Jolasak eta tailerrak, Eusebio Gurrutxaga plazan.
12:30. Iraunkorrak txaranga-ekin kalejira.
14:00. Elkartasun argazkia, Arranplan.
14:30. Herri bazkaria txosnagunean. Ordu berean, ikasleen



Haur batzuk danborra jotzen, iazko danborradan.

eta gazteen bazkaria Torreberri gaztetxean. Bazkalostean, Zumaia Karropoteoa.
17:30. Herriko txarangarekin eta Pello eta Nikolasa erraldiekin kalejira.
18:00. Herri kirol erakustaldia, Odietan.
18:30. Iraunkorrak txaranga-ekin kalejira.
21:30. Kaparrak eta Rekiem taldeen kontzertuak, Torreberri gaztetxean.
22:00etatik 01:00etara. Davila DJa, Kofradian.
22:30. Bikabi, Marte Lasarte eta Malakias MX3 taldeen kontzertuak, txosnagunean.

Maiatzak 4, igandea

08:00. Goiz soinua, Zumai txaranga-ekin.

11:00. Eskola kiroleko piraguis-mo estropada.
12:00. Zaldi lasterketak, Itzurrun hondartzan.
12:00. Sutan txarangaren kalejira.
17:00. *Ai, Zapotxin! Baratzuri zoparen sekretua* antzezlan umeentzat, Torreberri.
17:00. Talo postua, Saregile plazan.
17:30. Trainerillen estropadak: gizonen 40. San Telmo saria eta emakumeen XI. San Telmo saria.
18:00. Sutan txarangaren kalejira.
19:00. Babarrunba taldearen kalejira.
22:00. Joselu Anaiak, Kofradian.
00:00. Bandera jaitsieraren ekitaldia, Kofradian.

mara
TELEFONIA - INTERNETekin
elektrozitatea, s.l.

GORA SAN TELMO!

mara.eus

943 143 097 / 669 748 083

Caritas Txirrindulari Elkartea Pilota Elkartea
Zumaia Futbol Taldea Itxas-Gain
Telmo Deun A. E. Emakumeon* Etxea

MARA KULTURA ETA KIROLA LAGUNTZEN


Beduola Untziola Elkartea Pulpo Eskubaloia
Odol-emaileak Kodaore Judo Elkartea

EDO ZUK AUKERATZEN DUZUN TALDEA



Casa BASUSTA

Etkez etxeko
zerbitzua



Santiago auzoa, 18
943-86 26 11



Sartu gure **online dendara**
eta egin zure erosketak
etxetik

www.floristeriabasusta.com



40 urte baino gehiagoko
esperientzia sektorean



Landareak
Dekorazioa
eta opariak
Hileta zerbitzua
Lore sortak
Ezkontzak



NIK

hik, hark, denok

GUKA EGITEN DUGU



Iñaki Aristi / Arraunlaria / Zumaia
Telmo Deun arraun elkarteko presidentea

**ZUK ERE
EGIN GUKA**
egin bazkide

Guka independentea da eta komunitatean du oinarria. Herritik eta herriarentzat sortua izanik, aurrera egiteko, guztion babesa eta lankidetzaren ezinbestekoak dira.

GUKA

Eskaneatu QR-a, eman zure babesa
maiatzak 31 baino lehen eta

***irabazi bidaia bat
Tenerifera.***

